

Estitxu Alkorta aurkeztu zuen EAJk

Lasarte-Orian alderdiak izango dituen erronka nagusiak azaldu zituen

Gero eta gertuago dago udal hauteskundeetako data, maitzak 22a. Horregatik, herriko talde politikoek haien zerrenda edo alkatetzarako aurkezpena egiteko garaia da. Oraingoan, alderdi jeltzalearen txanda izan da.

EAJk ostiralean, Dana Ona jatetxean burutu zen ekitaldian, Estitxu Alkorta aurkeztu zuen alkatetzarako hautagai bezala.

Estitxuren ondoan, herriko eta inguruko jeltzaleak eta Markel Olanok, Diputatu Nagusirako hautagaia egon ziren.

Erronka nagusiak

Estitxuk Lasarte-Orian dituen EAJren erronka nagusiak aurkeztu zituen.

Alkortak esan zuenez, herriko ekonomian adostasun handia eta parte hartzailea lortzeko lan egingo dugu.

Era berean, Lasarte-Orian



Estitxu Alkorta eta Markel Olanok aurkezpenean, alderdi jeltzaleko zerrendetan egongo diren herritar batzuekin.

gelditzen diren eremu berdeak mantentzearen eta auzoen arteko mugikortasuna hobetzeko aldeko lana egingo dutela aipatu zuen.

Estitxu Alkortak gaineratu zuenez, "Lasarte-Oriak bere

herri, kultura eta nortasun izaerak berreskuratu behar ditu. Horretarako, ohiturak eta tradizioak berpiztu behar dira, lasarteoriatarrek gozatzeko aukera izan ditzaten, eta erki-dego bereko kideak senti dai-

tezen. Lasarte-Oria benetako herri elebiduna izan dadin lan egingo dugu".

Markel Olanok, berriz, "Estitxuk gaitasuna du eta herri honi buelta emango dion pertsona da," adierazi zuen. •

25 urte kartzelan

Lasarte-Oriako hiru preso politikok aurten kartzelan 25 urte beteko dituztela eta, euren egoera salatuko dute preso hauen senide eta lagunek. Apirilaren 15ean manifestazioa egingo da ostiralez eta bestalde, Udalari preso hauen eta euren senideen egoera eta zailtasun arduratu daitezela eskatuko diete. Sei dira guztira Lasarte-Orian 20 urte baino gehiago kartzela daramatenak. /4-5 ORRIALDEAK

Kalitatezko ahotsak

Operetako ariak, duoak eta hirukoteak entzun ahal izan ziren ostiralean Brigitarren komentuan.

Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioko kantu ikasleak izan ziren Danok Kidek antolatutako VI. Musika Topaketen saioko protagonistak.

Egile handien lanak, hala nola, Mozart, Rossini edo Schubert eta abesti herrikoiez gozatu zuten bertan bildu ziren herritarrek. Kalitatezko kontzertua eskaini zuten Ainhoa Merzeroren ikasleek. •



Francisco Escudero kontserbatorioko kantu ikasleek bakarka, binaka eta hirukotea eskaini zituzten egile ezagunen lanak.

UDALA/3

Gazte ikastaroe-tan izena emateko epea irekita dago

BERTSO-AFARIA/2

Egaña eta Amurizaren bertso bikainak Arrieskalletan

KIROLA/8

Kick Boxing eta K-1 borroka biziak ikusi ziren Michelinen

Salesianos Urnieta Salesiarrak
FORMACIÓN PROFESIONAL
LANBIDE HEZIKETA

Diseinu grafikoa, Inprimaketa, Mekanika, Elektrizitatea, Elektronika
Diseño Gráfico, Impresión, Mecánica, Electricidad, Electrónica

apirilak 9, 10:00-13:00
9 de Abril, 10:00-13:00

www.salesianosurnieta.com

giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu...



ikastetxea ikusteko aukera
puertas abiertas



zatoz ven

Txapeldun ohien saio bikaina

Arrieskalletan kantatu zuten ostiralean Andoni Egaña eta Xabier Amuritzak

Arrieskalleta elkarteko bertso afarian izan zirenek ederki gozatu zuten Andoni Egaña eta Xabier Amuritz txapeldun ohiek afalostean eskaini zuten saioaz. Unai Muñoren gaietara erantzunez, zein librean, bi bertsolariek daukaten maila erakutsi zuten. Aurretik, Kultur Etxean izan zen Egaña Bertso Eskolako partaideei aholkuak ematen. Ostegun eta ostiralean txapelketetan aritzeko prestaketari buruzko mintzaldi-ikastaroa eman zuen kultur etxeko hitzaldi aretoan. Herriko bertso eskolako partaide batzuk Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko dute eta buru belarri ari dira prestatzen; lanean jarri zituen zarautzarrak.



Bi maisu handi izan genituen ostiralean Lasarte-Orian. Tabakoaren kontrako legea hizpide izan zuten, eta Egaña ez zuen purua utzi.

Bertso afari ederra, bikaina egin zuten ostiralean Arrieskalleta elkartean. Andoni Egaña eta Xabier Amuritz ederki aritu ziren bertsozaleen gozamenerako eta euren maisutasuna erakutsi zuten. Beraz, ostiralean elkartera hurbildu ziren bertsozaleen gozagarri izan zen bi txapeldun ohiek egindako saioa.

Librean aritu ziren aurrena gai ezberdinak jorratuz. Ofiziotan gai xelebreak entzun ahal izan ziren. Euskal Herriko bertsolari txapelketako txapel gaia jorratu zuten eta lortzeko aholku bila aritu ziren. Tabakoaren kontrako legeak ere presentzia izan

zuen euren arteko bertso-solasaldian.

Orain puri-purian dagoen beste gaia, Erraustegia ere agertu zen Arrieskalletako bertso-saioan. Eta nola ez, Ana Urchuegia eta Somotoko ustezko irregularitasunei bertso batzuk eskaini zizkieten bi maisu hauek.

Hau bertso-saioko lehenengo zatian, bigarrenean Unai Muñoa gai jartzaile ibili zen. Bigarren zati honetan ere Amuritzak Xalbador, Pello Errota, Lazkao Txiki, Basarri eta Uztapide bertsolari bikainen bertso zaharrak ekarri zituen. Entzuteko ikus-kizun polita izan zen bertso-saio amaiera honetan.

Egaña, maixu

Bestalde, Ttakun Elkarteko bertso eskolak Gipuzkoako Txapelketaren prestaketarekin segitzen du.

Aurreko ostegun eta ostiralean bertso eskola berezia jaso zuten herriko bertsolariek, kultur etxean. Andoni Egaña txapeldun ohia izan zuten irakasle eta maixu. Bi egunetan hogeitabat lagun elkartu ziren Egañaren hitzaldia entzuteko, bi entrenamendu saioak ire-

kiak izan ziren eta.

Txapelketako saio batera zein jarrera eraman behar den edota nola prestatu daitekeen erakusten aritu zen. Andoni Egaña kantuan jarri zituen bertso eskolako partaideak, nagusiki praktikoa izan baitzen saioa.

Jakina da Lasarte-Oriako Bertso Eskolan ari diren zortzi bertsolarik parte hartuko dutela maiatzaren hasi eta abenduaren bukatuko den

Gipuzkoako Txapelketan: Zigor Iriondo, Andoni Otamendi, Unai Muñoa eta Ane Labaka herritarrak, eta beste lau bertsolari gazte Beñat Iguaran, amasarrak, Asier Azpiroz zubietarrak, Unai Gaztelumendi aforgetarrak, eta Oier Iurrumendi hernaniarrak.

Lehen fasea maiatza eta ekaina hasieran jokatu da eta irailean jarraituko du gero. Bitartean, prestaketa garaia. •



60 lagun inguru bildu ziren bertso-saioan, eta guztiak ederki gozatu zuten bertsolaritzaren bi maisu handi hauekin. Bi bertsolarien arteko ika-mikak barreak eragin zituen saioan zehar.

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintzarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Gazte ikastaroetan izena emateko epea ireki da

Maiatza eta ekainean eskainiko dira ikastaroak

Aste Santuko oporren amaierarekin Lasarte-Oriako Udalak gazteei zuzendutako ikastaro berriak jarriko ditu martxan. 14 urteko gazteek ekintza berrietan murgiltzeko aukera izango dute programazio zabal bati esker.

Maiatzaren 2an hasi eta ekainaren 24a bitartean gustu guztietarako ikastaroak izango dira Manuel Lekuona Kultur Etxean.

Jokatzen ikasteko

Maiatzaren 2an hasi eta ekainaren 20a bitartean, astelehen guztietan Zisterra eta tenplarioen jokoetan zein pokerrean jokatzen ikasteko aukera eskaini nahi dute udaleko Gazte saileko arduradunek. Ikastaroak arratsaldeko 19:00etan hasi eta bi orduko iraupena izango dute.


Irudia zaindu

Maiatzaren 3an hasi eta ekainaren 21era bitartean batuka dantzan hasteko eta autoestilimoa lantzeko ikastaroak egingo dira.

Autoestilismo ikastaroa arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta 21:00etan amaitu; batuka, aldiz, 20:00etan hasi eta 21:15ean amaituko da.

Ikasten jarraitu

Asteazkenetan, maiatzaren 4tik hasita ekialdeko dantzetan hasteko aukera ere eskainitzen dute. Beraz, arratsaldeko 16:30ean hasita eta 18:00ak



Pokerrean ikasteko aukera eskaini nahi dute Gazte Ikastaroetan.

bitartean dantza berriak probatzeko aukera egongo da.

Arratsaldeko 19:30etik aurrera, aldiz, josketa-konponketa ikastaroa egingo da.

Denentzako tokia

Maiatzaren 5ean hasita, ostegunero dantza urbanoak (hip-hop) ikasteko aukera egongo da kultur etxean arratsaldeko 20:00etatik 21:15ak bitartean.

Era berean, txotoxngilo ikastaroak ere izango ditugu ostegunetan. Hau arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta 21:00etan amaitu.

Astea ondo amaituz

Lan astea ondo amaitzeko ostiralean ere bi ikastaro antolatuko dira Udaleko gazte sailak.

Arratsaldeko 19:00ak eta 21:00ak bitartean trebetasun sozialen ikastaroan parte hartzeko aukera egongo da, eta 20:00etatik 21:15era, aldiz, areto dantzen txanda izango da.

Ikasle kopuru mugatua

Apirilaren 20a bitartean gazteentzako informazio bulegoan izena emateko aukera izango dute 14 urtetik gorako guztiak.

Ikastaro bakoitzaren prezioa 23 eurotako izango da herrian erroldatuentzat eta erroldatu gabeentzat 40,50 eurokoa.

Mugitu zaitez, ikastaro guztiek ikasle kopuru mugatua dute eta. •

EUSKARA

III. Udaltop jardunaldiak osteguna eta ostiralean kultur etxean izango dira

Lasarte-Oriako udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Eudelek eta Kutxak antolatuta, Euskal Herriko Euskara Zerbitzuen topagunea izango da Lasarte-Oria, ostegun eta ostirala honetan.

Herri desberdinetako euskara teknikariek "Zer da euskara ez dakitenentzat?" galdera erantzuten saiatuko dira eta pertsona horiei euskara hurbiltzeko udalek zer egin dezaketen eta nola aztertuko dute III. Udaltopkek iraungo dituen bi egun horietan.

Aurten gainera, Katalunia eta Valentziako hizlariak gonbidatu dituzte jardunaldi hauetan parte hartzera eta hizkuntzalari-tzan haien herrialdeetan duten esperientzia entzuteko aukera egongo da, besteak beste. •

AISIA

Gazte-Klubeko lagunek Larraulera irteera egingo dute

Herriko gazteek Aste Santuetako oporretan ez dute aspertzeko astirik izango. Ttakunek Udalarren laguntzaz, Larraulera hiru egunetako irteera antolatuko baitu.

Txango berezi hau apirilaren 18 eta 20aren artean izango da. Honetan, lagunekin egoteko aukera izateaz gain, primeran gozatzeko ekintza ugari izango dituzte, hala nola, mendi irteera, milaka jolas edo bideo klip bat grabatuko dute gaztetxoek.

Txangoari buruzko informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko Ttakuneko bulegora hurbildu behar dira interesatuak, apirilak 14a baino lehen.

Irteerako prezioa 50 eurotako da, Ttakuneko bazkideentzat izan ezik, hauek 47 euro ordaindu behar dituzte. Ordaintzeko bi modu egongo dira, bata txartelaren bidez eta bestea 2001 0048 25 0010089696 kontu zenbakian diru sarrera eginaz. Azken modu hau aukeratzen dutenek, ordain-agiria Ttakunen aurkeztu behar dute. •

AMARAUN JAIALDIA

Trukaketako jostailuak jasotzeko egunak

Amaraun jaialdiaren barruan, apirilaren 9an, jostailuen trukaketa azoka egongo da.

Erabiltzen ez diren, baina egoera onean dauden jostailuak eman ditzakete interesatuek. Beti ere, sexu bereizketa edo indarkeriaren aldeko jarrerak erakusten ez dituztenak badira.

Jostailuak apirilak 4, 5 eta 6an jasoko dira honako lekuetan, Ttakuneko bulegoan, goizez, 9:00etatik 13:30era eta Ludoteketan, arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara. •

LANAK

Loidi Barreneko tunela itxia

Gaur, saneamenduko kolektore interzeptore orokorraren lanekin jarraituz, Loidi kaleko N-1 azpiko pasabidea, Adurizeko tunela, itxiko da. Udaletik azaldu dutenez, bi astetan zehar zorua prestatu eta asfaltatu egingo da. Alkatetzak barkamena eskatzen du lan hauek eragin ditzaketen eragozpenengatik. •

SAN PEDRO JAIK 2011

Ekintzetako diru laguntza eskaera egiteko epea ireki du Udalak

Lasarte-Oriako Udalak 2011. urtean San Pedro Jaietako programari diru laguntzak emateko oinarriak argitaratu ditu www.lasarte-oria.org web orrialdean.

Diru laguntza horiek egoitza Lasarte-Orian duen pertsona fisiko eta juridiko publiko nahiz pribatuek eskatu ditzakete, betiere, San Pedro Jaietan interes orokorreko jardueraren bat egiten badute.

Norgehiagokako erregimenean emango ditu udalak laguntza hauek eta horregatik, eskaera egitekoan oinarrietan agertzen den dokumentazioa erantsi behar da.

Eskaerak Lasarte-Oriako Udalarren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, edo horretarako legez ezarritako beste edozein lekutan, apirilaren 8ko 13:00ak bitartean. •

Apirilaren 17an iritsiko da Korrika

Korrika badator! Korrikaren XVII. edizioa apirilaren 17an Lasarte-Oriako kaleetatik igaroko da. Baina eguna iritsi baino lehen, ekitaldiak prestatu dituzte.

AEK-Muntteri euskaltegiko lagunez gain, herriko hainbat elkarte, herritar eta Udalak parte hartu dute programazioa osatzeko.

Korrikaren aurtengo edizioa Donostian amaituko da apirilaren 17an. Egun berean, baina goizaldean gure herritik igaroko da Gipuzkoako hiribururantz egin baino lehen.

Korrikako aurkezpena

Korrikaren inguruko informazioa emateko, apirilaren 8an aurkezpena egingo da kulturetxean 20:00etan. Talde ugari



Kilometroren bat erosi dutenek aurkezpenean petoak emango dizkiete.

hartuko dute parte bertan; Erketz dantza taldea, txalapartariak, bertsolariak, Kukuka antzerki eta dantza eskolakoak, Xumela abesbatza.

Gainera, Korrikako aurtengo arropa erakusteko desfilea egingo da eta Korrika 16ko bideo proiektzioa ere egingo

da. Azkenik, aurtengo petoen banaketa ere egingo da.

Antzerkia

Ekitaldien barruan, apirilaren 9an, *Baginaren bakarriketak* antzerkia iritsiko da kulturetxera 20:00etan, doan, Kutxaren babesarekin. •



Plazaolako trenaren bidean zehar dauden zuhaitzak aztertuko dituzte, besteak beste, Oinatz taldeko lagunek, hurrengo igande.

Lasarte-Oriako zuhaitzak ezagutzen Oinatz eskutik

Oinatz taldeak gure herriak duen aberastasuna erakusten jarraitzeko asmoa du.

Aurreko txangoan, Lasarte-Oriako mugak eta hainbat txokoren historia eta kondairak ezagutzeko aukera izan zuten taldearekin batera ibilbidea egin zuten herritarrek.

Oraingoan, herriak duen zuhaitz aberastasuna ezagutu ahal dute interesatuak daudenak, Lasarte-Oriako zuhaitzak izeneko ibilbidea antolatu baitute Oinatz taldeko lagunek.

Honetan, herriko zuhaitz motak eta familiak erakustez gain, zuhaitz eta zuhaixka tar-

teko desberdintasunak, hauek izan ditzaketen gaitzak, etab. izango dira mintzagai.

Era berean, ibilbidean zehar, zuhaitzen hostoak bilduko dira eta haien bidez zuhaitzak desberdintzen ikasiko dute.

Ibilbidea

Dorre parkea, Parapeto ondoko parkea, Kotxeras eta Arranbide auzo ingurua, Udalgutegia, Plazaolako bidea, Martin Berasategi eta Goiegijatetxe inguruak eta Atsobakar auzoko hainbat eremu izango dira zuhaitzen ibilbide honetan bisitatuko direnak. "Denbora

ematen badu, Villa Mirentxu ondoko parkeko zuhaitzak ere aztertuko ditugu," aipatu dute antolatzaileek.

Honela, Oinatz taldeak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu irteeran parte hartzera.

Apirilaren 10ean, igandea, goizeko 09:00etan, Jalgi taberna parean, emango zaio hasiera Lasarte-Oriaren zuhaitzak ezagutzeko aitzakiaz taldeak antolatu duen ibilbideari. Goizeko irteera izango da hau eta eguerdi aldera etxera buelta egingo da.

Aurreko irteeran bezala, hau doan izango da eta ez da izena eman beharrik izango. •

Leire Vegak irabazi du 'Motxian eby' lehiaketa

Ostiralean Motxian eby SMSen lehiaketaren irabazlearen izena jakitera eman zuten, Leire Vega gazteak idatzi du herriko mezu onena eta horregatik saria berarentzako izan da.

Jesus Zaballos alkatearen eskutik sakeleko telefono berria jaso zuen Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleak.

Nr bhotzan zde bna txmnoarn iprdia bno itxsago zr bna, amz! izan da aurtengo SMS lehiaketako mezu onena. Uleru ez duzuentzako hona itzulpena; "Nire bihotzean

zaude baina tximinoaren ipurdia baino itsusiagoa zara, baina asko maite zaitu".

Buruntzaldeko Udalek antolatutako lehiaketa honen bitartez gazteen arteko komunikazio informalean euskararen erabilpena sustatzea dute helburu. Zaballosek aipatu zuen bezala "Zibereuskara sortzen ari da eta gero eta indar handiagorekin gazteen artean".

Eskualdean guztira 133 gaztek hartu dute parte eta 153 mezu bidali dituzte www.buruntzaldea.org web-orrialdera. •



Leire Vegak Jesus Zabalosen eskutik jaso zuen Motxian eby lehiaketako saria.

Calçot jana, Buruntz-Azpi elkarte, giro ederrean

Buruntz-Azpi elkarteak aurreko asteburuan, hau da martxoaren 26an, larunbatean, egin zuen Calçotada festan 65 bat lagun bildu ziren, 55 heldu eta 10 haur hain zuten ere. Otordua, denbora aurrera joan ahala, festa bihurtu zen urtero bezala. Aurtengoarekin jada hirugarren urtez jarraian ospatu dute Calçot jana Lasarte-Orian, eta horrela jarraituz gero tradizio bihurtuko da.

Brasan erreta

500 inguru calçot ekarri eta erre zituzten Basaundi auzoko elkarte, ondoren erretako azala kendu, saltsa batean busti eta eskuekin jateko.

Urtero bezala ere, Calçotaz apartez arkume errea ere jateko aukera izan zuten bertan bildu ziren 65 pertsonak.

Gironako Porqueres herritik etorritako Josep eta Maria Kataluniako bikoteak ekarri zituzten

gero Buruntzazpi kanpoan erre zituzten Calçotak.

Tradizioaren bidean

Lasarte-Oriara hirugarren urtez jarraian etorri dira, Josep eta Maria Kataluniako bikotea eta oraingoan gainera beste bi lagunekin, Enric eta Eva.

Oporretan ezagutu zuten lasarteoriatar batzuek bikotea eta hortik sortu zen festa egiteko aukera.

Horrela jarraituz gero, tradizio bihurtuko da eta ziurrenik hurrengo urterako ere hitzordua jarri zuten.

Giro bikaina

Calçot guztiak amaitu ondoren, eskal doinuen tartea iritsi zen.

Bazkalostean giro bikaina izan zen, trikitixa eta txalaparta doinu eta umore onarekin luze jo zuen Calçot jana hirugarren edizio honek. •



Urtero bezala Buruntz-Azpi antolatutako Calçot jana ostean taldeko argazkia atera zuten bertan bildutakoak. Arg.:Tomas Arruti

Egunero

Erakusketa

SHANDRA PEREZ LUCEROREN margolanak ikusgai. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar

Ostirala, 8

Aurkezpena

17. KORRIKAREN AURKEZPENA egingo da. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

EUSKARAZ

Larunbata, 9

Kontzertua

ANDRAKAN ETA OREINDIK taldeen emanaldia. Jalgi kafe-antzikian, 22:00etan

Igandea, 10

Zinea

LOS VIAJES DE GULLIVER filma ikusgai izugai da, haurrentzako zinema atalean. Sarrera, 3,30euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ



Emakumearen sexualitatea lotsik gabe aurkeztua

BAGINAREN BAKARRIZKETAK antzezlan eskainiko da Txalo produkzioen Korrikaren aldeko egitarauaren barruan eta Kutxaren babesarekin.

"Baginaren bakarrizketak" egindako elkarrizketa batzuen emaitza da. Horretarako adin, arraza, maila kultural eta sozial ezberdinetatik datozen 200etik gorako emakumeri egin zieten elkarrizketa.

Obraren helburua emakumeak euren sexualitatearekiko sentitu eta sentitzen dituzten erru eta lotsa sentipenetatik libre uztea da.

LARUNBATEAN, APIRILAREN 9AN
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN
20:00ETAN, DOAN

Zinea

Asteartea, 12

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "JOSTATUZ IKASTE" Fermin Korkostegiren eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan

txean, 21:30ean JATORRIZKO BERTSIOA, GAZTELANIAZ SUBTITULATUA



na kulturetxean, 20:00etan, GAZTELANIAZ

Antzerkia

Telebistako VAYA SEMANITA programako sketchak antzerkian ikusi ahalgo dira. Sarrera, 10 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:30ean.

GAZTELANIAZ

Bertsio-saioa

IRUN ETA LASARTE-ORIAKO BERTSO-ESKOLEN ARTEKO BERTSO-DESAFIOA Korrikaren aldeko egitarauaren barruan. Jalgi kafe-antzikian, 22:30ean, EUSKARAZ

Larunbata, 16

Bakarrizketa

Mikel Bermejo, Mailu Arruti herritarrek eta Ione Gorrosta-zu eta Olatz Etxeberria aktoreek BAKARRIZKETAK eskainiko dituzte Korrikaren alde. Jalgi kafe-antzikian, 22:30ean.

EUSKARAZ

Osteguna, 14

Zinea

WHEN YOU'RE STRANGE filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean

Ostirala, 15

Bakarrizketa

Xpressionki! eta Udalak hitzartuta dituzten Gazte kontzertuen barruan, RUBEN ARROSPIDEK BAKARRIZKETAK eskainiko ditu. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean



Liburutegiko ordutegia

Asteleheneretik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Korrika 17ko arropa salgai

Korrika 17aren arropa, kami-setak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua.

Materiala Urruzola merterian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erraldoiaren amaiera arte.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, lau bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, diru zorro bat, neskaren esku-muturreko bat, bi zilarrezko pultsera, bi betaurreko graduatu bata zorroarekin, poltsa eta telefono mugikor bat, haur zamarra bat, bi larruzko zamarra eta belarritako batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek,

hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden persona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Hautesle-zerrendak

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazten du, apirilaren 4a eta 11ren artean, biak barne, udal txean kontsultatu ahal izango direla hautesle-zerrendak. Horiek izango dira datozen maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeetarako erabiliko direnak.

Interesatuak udaletxean dagoen informazioa bulegora joan beharko du 9:00etatik 13:30era.

Udalekuetan begirale izateko

Ttakunek Udalaren laguntzaz antolatzen dituen Udako Txo-

koak egitasmoan edo Mendi-gorrian eta Kanpaldietan begirale izateko aukera dute nahi duten gazteek. Udalekuak uztailan eta abuztuan izango dira.

Interesa dutenek zenbait bide dituzte izena eman edo informazioa eskuratzeko: mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera edo Ttakuneko bulegotik, Geltoki kale 4 zenbakitik, pasa daitezke.

Begirale bezala, izena emateko azken eguna maiatzaren 11a izango da.

Marrazki eta margo eskolak

Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteak marrazki eta margo eskolan oraindik plazak badaude.

Eskolak asteazkenetan eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era izango dira.

Interesa dutenek kulturetxeko 2. solairura jo behar dute.

Erretiratuen bidaia Benidormera

Biyak Bat elkarteak bazkide guztientzako antolatuta dute 15 eguneko bidaia Benidormera.

Irteera maiatzaren 15ean izango da eta itzulera 29an. Benidormeko Cristal Park ize-neko hotelean hartuko dute ostatu.

Norbaitek interesarik badu edo informazio gehiago nahiko balu, Biyak Bat elkarteak Kale Nagusian duen egoitzatik pasa behar du.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Marco Ruizek Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkatearen eskutik jaso zuen txapelkun egiten duen gerrikoa.



Elkarren aurka borrokatu arren, euren arteko harreman ona erakutsi zuten parte hartzaile guztiak.

Marco Ruizek eskuratu zuen K-1 gerrikoa

K-1 eta Kick Boxing borroka ikusi ziren Michelinen

Euskadiko K-1 txapelketa ospatu zen larunbatean Lasarte-Orian. Michelingo Frontoian, arratsaldeko 18:00etan eman zitzaizen hasiera borrokei. Bigarren aldia da K-1 eta Kick Boxing borroka herrian antolatzen direla.

Amateur mailako Euskadiko K-1 txapelketa eta Kick Boxing borroka ikusteko parada egon zen larunbatean herrian. Sei K-1 modalitateko borrokalari lehiatu ziren txapelketa honetan.

Marco Ruiz, Moumen, Agostiño Fernandez, Leo Berraute, Jazin, Abel Rodriguez eta Julen Roman gogor lehiatu ziren euren artean. Lehenengo hiruak bakarrik lehiatu ziren Euskadi mailan K-1eko txapela eskuratuz. Hasieran aurreikusiak zeuden beste 5 lehiakide huts egin zuten lesioen ondorioz.

Kostata, baina garaile

Lehenengo saioan Marco Ruiz eta Moumen lehiatu ziren. Ruizek lortu zuen finalerako pasea Moumeneri gibelean jo eta gero KO utzita. Agostiño Fernandez zuzenean finalera jo zuen eta bertan Marco Ruiz aurkaria aurkitu zuen. Borroka lehiatua izan zen, baina Marcok eskuratu zuen K-1 txapelketa gerrikoa kolpe zuzen batez aurkaria ezin altxatu utzi eta gero.

Marco Ruiz izan zen beraz garailea eta Jesus Zaballos herriko alkatearen eskutik K-1 Euskadi mailan txapelkun egiten duen gerrikoa eskuratu zuen.

Kick Boxing-aren txanda

Euskadiko K-1 txapelketaz gain, Kick Boxing borroka ere ikusteko parada izan zen larunbatean.

Kick Boxing erakustaldiekin eman zitzaizen hasiera arratsalde borrokatuari. Bertan herrikoa den Erik Valverde Aitor Vilariñoren aurka lehiatzen ikusi genuen. Azkenean, Vilariñok puntu gehiago eskuratu eta irabazle atera zen.

Europako txapelkun ohia den Mikel Rodriguez ere Josu Goienetxeren aurka ikusi genuen gogor borrokatzen. Azkenean, Europako txapelkun ohia irabazle atera zen bi erasoaldietan.

Ehun bat lagun bildu ziren Michelingo frontoian txapelketa hurbiletik ikusteko. Giro ederra eta bizia izan zen.

Sarrerren diruarekin bidaia

Sarrerren prezioaren bitartez eskuratutako diruarekin Tarragonan ospatuko den Estatuko txapelketarako bidaia ordainduko zaie Gipuzkoako borrokalariak. •



Erik Valverde gogor lehiatu arren Vilariñoren aurka ezin izan zuen garaipena eskuratu.



Kolpe trebe batekin, Marco Ruiz Agostiñok finala lagatzera behartu zuen Fernandez.

txoko olinpiadak 2011

apirilaren 18-19-20 + 26-27-28-29-30

KAMISETA

ABESTIA

UTRIKOLAK

MENDI-OLIMPIADA

HERRIKIROLAK

DOMINAK

9:00etik 13:30etara martxan

2tik 8 urte bitarteko haurrak hartuko dira (2002tik 2008ra bitartean jaioak)

aste santuko

amarau

Ludoteka

Ttakun Kultur Elkarte (Geltoki 4, behe) // 943 371448 // aisia@ttakun.com // www.ttakun.com